

MARKINA-XEMEIN / Jai giroan inauguratu dute Bekobentako liburutegi berria

Eskolako ordutegiaz gainera, asteko hiru arratsaldetan egongo da zabalik, eta nahi duen guztiak erabili ahalko du.

EIDER MUGARTEGI

Markina-Xemeingo Eskola Publikoak liburutegi berria inauguratu zuen atzo. Orain arte eskola orduetan egon da zabalik, baina hemendik aurrera astean hiru egunetan zabalduko dute. Hori ospatzeko jaia eduki zuten, mago eta guzti.

Liburutegia eskolak martxan duen Irakurketa planaren barruan sartzen da. Irakurzaletasuna suspertzeko asmoz, hainbat alor lotzen dituen proiektua daroe aurrera, eta liburutegia ere bere barruan kokatzen da.

Proiektu horretan, Markina BHIK, Bekobentak, Bekobentako Guraso Elkarteak eta Herri Bibliotekak parte hartu dute. Herri Bibliotekak ezagupen teknikoak jarri ditu, eta beste guztiek diru laguntza eman dute proiektua aurrera eroateko.

Aurrekontu handia

Lehenengo, antolaketagaz arduratu dira. Aurretik zeuden liburu asko bota egin dituzte, lekuak banatu egin dituzte, eta umeentzako egokiagoak diren apalak jarri dituzte, Book erakoak. Baina kopururik handiena liburuak erostera bideratu dute. 9.000 euro baino gehiago.

Hori guztia egiteko inbertsio handia egin behar izan da. Eskolak, institutuak eta, batez ere, Bekobentako Guraso Elkarteak jarri du dirua liburutegia prestatzeko.

Ondoren, liburutegia zertarako den zehaztu dute. Esate baterako, ez da zigor gunea izango eta ezin izango da bertan jan.

Ordutegi zabalagoa

Horretaz guztiaz gainera, ordutegia zehaztu dute. Orain arte, eskolako orduetan zabaldu dute bakarrik, jolas ordu eta bazkal ostean, baina ordu horietatik kanpo ere zabaltzea erabaki dute. Horrela, martitzen, eguazten eta egunetan 16:00etatik 17:00etara zabalduko dute nahi duen guztiarentzat. Beraz, eskola orduetan ikastetxekoek erabili ahalko dute, eta arratsaldeetan, behar duen guztiak.

Eskola orduetatik kanpoko ardura Guraso Elkarteak hartuko du, eta liburuen koordinazioaz Herri Biblioteka arduratuko da.

Liburuen mailegua

Liburutegi berrian, hiztegi, entziklopedia eta, batez ere, materia liburuak aurkitu ahalko dira, baina baita literatura "ipuinak, komikiak, albumak" ere. Horretaz gainera, gurasoentzako atal bat jarri nahi dute, sarritan umeei laguntzera joaten direlako.

Beste alde batetik, liburuak atera ahalko dira, baina horretarako, Herri Bibliotekako edo sarean dauden liburutegi liburutegietako karneta eduki eta eroan beharko da derrigorrez.